

Derioko Udalaren 2024ko urriaren 31eko Alkatetzaren 500/2024 Dekretuaren bitartez honako laguntza hauen deialdia onetsi zen: 2024. urtean prestakuntza-ekintza ez-arautuak egiten dituzten Derioko udalerriko langabeen artean enplegua sustatzeko laguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia.

BDNS (Identif.):

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak:

Derion 2024-01-01etik edo lehenagotik erroldatuta daudenek parte hartu ahal izango dute, baldin eta egun horretan 18 urte edo gehiago badituzte eta prestakuntza-ekintza ez-arautuak egiten dituzten Derioko udalerriko langabeen artean enplegua sustatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileetan (2024ko urriaren 22ko BAO, 204. zk.) ezarritako gainerako betekizunak betetzen badituzte.

Bigarrena. Helburua:

Dirulaguntzaren xedea 2024ko urtarrilaren 1etik eta 2024ko abenduaren 1era arte egiten diren prestakuntza-ekintza ez-arautuak dira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

Oinarriak hemen: 2024ko urriaren 22ko BAO, 204. zk.

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/10/22/II-5621_eus.pdf?hash=1fd05eab59c88ab88023234d55c61dde

Laugarrena. Zenbatekoa:

Kreditu erabilgarria 4.000 euro da, eta modu proportzionalen banatuko da eskatzaileen artean. Onuradun bakoitzak, gehienez, 500 euro jasoko ditu, betiere, deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko abenduaren 1era arte izango da.

Derio, 2024ko urriaren 31a

Alkatea, Esther Apraiz